



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko apirilaren 20an

44 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru Lege Proiektuak:**

- Foru Lege proiektua, Nafarroako Administrazio Publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).
- Foru Lege proiektua, 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko plan bereziari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).
- Foru lege proiektua, Nafarroako Kirolari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (4. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru Lege Proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua, Lurraldearen antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 273. artikulua aldatzeari buruzkoa (5. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoak zenbatekoa izanen den eta 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontualdietan nola banatuko den ezartzen duena (8. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena (15 or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:**

- Jabeldura, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua, Nafarroako Gobernua Bardeako tiro poligonoaren etorkizuna dela-eta egin duen politikari buruzkoa (18. or.).
- Mozioa, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Isu eta Luzaideko errepideetan hobekuntza lanak egin ditzan (19. or.).
- Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Gorte Nagusiak eta Estatuko Gobernuak premiatzen dira hauteskundeetan gainera legeria aldatzera, gizonak eta emakumeak hautagai eta hautetsi izateko aukera berdina izan ditzaten (20. or.).

- Mozioa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Ebroko Konfederazio Hidrografikoa, Nafarroako Gobernua eta Itoizko Koordinakundea premiatzen dira lanerako mahai bat era dezaten txosten berri bat eskatzeko Itoizko balizko hondamendi-arriskuei buruz (21. or.).
- Mozioa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurriak har ditzan telefonia mugikorreko antenak jartzearen inguruan (22. or.).
- Mozioa, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Itoizko urtegia betetzeko aurreikusitako lana geldiaraz dezan (23. or.).
- Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Tuteran, Ebro gainean, beste zubi bat egiteko azterlan bat presta dezan (24. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- Galdera, foru parlamentari Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón jaunak egina, Gabarderalen igerileku bat eraikitze-ko dirulaguntzari buruzkoa (26. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, Itunpeko irakasleen lansariak hobetzeari buruzkoa (26. or.).
- Galdera, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak egina, Nafarroako Gobernuaren eraikinetan segurtasun eta zainketa zerbitzuak emateari buruzkoa (27. or.).
- Galdera, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina, Herriguneetan dauden azienda-ustiategiei buruzkoa (28. or.).
- Galdera, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak egina, Vinsako zuzendari kudeatzailearen lanpostua betetzeko hautapen prozesuari buruzkoa (29. or.).
- Galdera, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak egina, Foruzaingoa Korrika dela-eta bide-segurtasuna zaintzen ez aritzeari buruzkoa (30. or.).
- Galdera, hauteskundeak aurreratzeko aukerari buruzkoa. Galdera erretiratzea (30. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako Administrazio Publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboei buruzkoa**

### *ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko apirilaren 9an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

“Biltzarreko Erregelamenduko 106. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona

ERABAKIA:

**Lehena.-** Nafarroako Administrazio Publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboei

buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2001eko maiatzaren 4ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea.

**Bigarrena.-** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2001eko apirilaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

## **Foru Lege proiektua, 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko plan bereziari buruzkoa**

### *ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko apirilaren 9an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

“Biltzarreko Erregelamenduko 106. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona

ERABAKIA:

**Lehena.-** 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko plan bereziari buruzko Foru Lege proiektuari

zuzenketak aurkezteko epea **2001eko maiatzaren 4ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea.

**Bigarrena.-** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2001eko apirilaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## Foru lege proiektua, Nafarroako Kirolari buruzkoa

### *ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko apirilaren 9an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

“Biltzarreko Erregelamenduko 106. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona

ERABAKIA:

**Lehena.-** Nafarroako Kirolari buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea

**2001eko maiatzaren 11ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea.

**Bigarrena.-** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2001eko apirilaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Lege proposamena, Lurraldearen antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 273. artikulua aldatze-ari buruzkoa**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko apirilaren 9an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 273. artikulua aldatzeari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**Lehena.** Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 273. artikulua aldatzeari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**Bigarrena.** Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2001eko apirilaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrús

### **Lurraldearen antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 273. artikulua aldatzeari buruzko Foru Lege proposamena**

ZIOEN AZALPENA

Lurzoruaren Araubideari eta Hirigintza-Antolamenduari buruzko 1956ko maiatzaren 12ko Legeak lurzoruaren udal-ondarea era zedila xedatu zuen, "herriguneeen zabalkundeari aurrea hartu eta hori teknikoki eta ekonomikoki garatu eta bidera-

tzeko". Besterentzeetarako, oro har, enkante publikoa ezarri zuen, baina salbuespenak ere egin zituen, zuzeneko, doako edo prezio baxuago baten trukeko lagapena baimentzeko zenbait kasutan, hala nola helburu kultural publikoetarako, etxebizitza ultraekonomikoetarako edo enkantetan lizitaziorik ez dagoenerako (153 eta 154. artikulua).

Enkante bidezko besterentze-modu horri eutsi egin zion Lurzoruaren Araubideari eta Hirigintza Antolamenduari buruzko Legearen testu bategina onetsi zuen apirilaren 9ko 1346/1976 Errege Dekretuko 168. artikulua. 1986ko apirilaren 18ko Toki Araubideari buruzko Legeko xedapenek arautzen zuten enkante hori; zehazki, ondare-izakerako ondasunak besterentzean enkantea erabil zedila ezarri zuen, arau orokor gisa, 80. artikulua.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak ezarri zuen, 133. artikuluan, enkantea izanen zela toki entitateen ondasunak besterentzeko prozedura orokorra, trukearen eta salbuespen gisako zuzeneko besterentzearen kasuetan izan ezik.

Enkante bidezko besterentzearen tradizio hori ekainaren 26ko 1/1992 Legegintzako Errege Dekretuak hautsi zuen; horren bidez, Lurzoruaren Araubideari eta Hirigintza Antolamenduari buruzko Legearen Testu Bategina onetsi zen, eta haren 284. artikulua arautu zituen babes publikoko araubideren bati loturiko etxebizitzak eraikitze edo interes sozialeko beste erabilera batzuetarako lurzoruaren udal-ondarearen ordainduzko besterentzeak. Lehiaketa-sistemaren bidez arautu zituen, eta, xedatuaren arabera, prezioa ez zen izanen zegokien egiazko aprobetxamenduaren hirigintza-balioa baino baxuagoa. Lehiaketatik kanpo utzi ziren babes publikoko etxebizitzak sustatzen dituzten ongintzako edo izaera sozialeko erakundeentzako lagapenak. Uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeko 274. artikulua eta hango xedapen gehienak ere ekainaren 20ko 1/1992

Legegintzako Errege Dekretuak ezarritako edukia-  
ren eta araubidearen ildoari jarraitu zitzaizkion.

Konstituzio Auzitegiaren martxoaren 20ko 61/1997 epaiak Lurzoruaren udal ondarea besterentzeko araudi osoan izan zuen eragina; hain zuzen ere, konstituziokontraiko eta deusez deklaratu zuen, besteak beste, ekainaren 20ko 1/1992 Legegintzako Errege Dekretuko 284. artikulua jadanik aipatua. Xedapen indargabetzaile bakarreko lehen idatz-zatia deusezteak, apirilaren 9ko 1346/1976 Errege Dekretuari dagokionez –hain zuzen ere, horren bidez onetsi zen Lurzoruaren Araubideari eta Hirigintza Antolamenduari buruzko Legearen testu bateginan–, hark indarra berreskuratzea ekarri zuen; horrela, bada, Lurzoruaren udal ondareaz denaz bezainbatean, haren 168. artikulua ere indarra berreskuratzea ahalbidetu zuen. Xedapen horren arabera, "Toki Entitateen lursailak besterentzeko enkante publikoa egin beharko da". Hala ere, xedapen horrek ez zuen indarrik izan Nafarroako Foru Komunitatean, bertan arau berekia baitzegoen: uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legea.

Toki entitateen ondasunak besterentzeko prozedura orokorra enkantea zenez, arau horiek salbuespen bat egiten zuten lurzoruaren udal ondarekoak izanik babes publikoko etxebizitzak eraikitzeko edo interes sozialeko beste xede batzuetarako erabiltzekoak zirenekin. Horrela, ordenamenduaren interpretazio sistematiko eta koherente baten bitartez, posible zen ondorioztatzea ezen, aipaturiko ondasunak xede horietarako erabiltzen ez zirenean, besterentzea enkante publikoaren prozedura orokorraren bitartez egin behar zela, eta ez salbuespenekoaren bitartez, zeina lege ezarritako kasuetara mugatu behar baitzen. Arauari buruzko ikusmolde horixe bera ondoriozta daiteke, 271. artikuluko 2. idatz-zatiaren edukitik, "hirigintza-planeamenduaren arabera babes publikoko araubideren bati edo interes sozialeko beste erabilera batzuei loturiko etxebizitzak" eraikitzeko xedeekin bateraezina den hirigintza-sailkapena daukaten lursailak besterentzeari dagokionez; izan ere, kasu horretan arauak lehiaketaren eta enkantearen artean aukera egiten uzten du. Beraz, lehiaketaren metodoa, salbuespen gisakoa, kasu horietarako baizik ez bada, enkanteak izan beharko luke besterentzea egiteko modua kasu horiek gertatzen ez direnean, hau da, babes publikoko etxebizitzak edo interes sozialeko erabilerak ez direnean; izan ere, kalifikazio hori ez dagokio planeamenduaren edozein xederi.

Administrazioak, besterentze-prozeduren objektibazioaren aurrean betiere bere erabakia-ahalmena eta irizpen-askatasuna areagotzen

duen formulen aldekoa izaki, helarazi zituen interpretazio-zalantzak ikusirik, Nafarroako Parlatmentuak lursail publikoen besterentze-araubidearen esparruan ekarpen garrantzitsua egin zuen, hirigintza-planeamenduak ematen dien erabileraren arabera. Sarrigurengo udalez gaindiko planeamendu sektorialak ukituriko eremua besterentzeko prozesua arautzen duen abenduaren 29ko 14/2000 Foru Legeak lursailen erabileraren arabera bereizi ditu besterentze-prozedurak. Etxebizitzetarako ondasunak lehiaketa publiko, lehiaketa-  
enkante, enkante, zuzeneko lagapen, Administrazioen arteko lagapen edo trukatzeko bidez besterentzea arautzen da. Etxebizitza librearen araubideko etxebizitza-erabilerarako edo jardura ekonomiko edo aukerakoetarako egiten diren besterentzeak enkante bidez egiten dira betiere.

Lurralde-aplikazioari dagokionez, araubide berri hori Sarrigurengo udalez gaindiko planeamendu sektorialak ukituriko eremura mugatzen da, eta kontraesanean dago Foru Komunitate osoan indarra duen 10/1994 Foru Legeko 273. artikulua xedaturikoarekin. Ondorioz, sistemaren zehaztasun eta bermerik handienak Nafarroako Gobernu eta Eguesibarko udal-dermioaren zati batera mugaturiko esparru bat ukitzen dituzte. Alabaina, udal-dermioaren gainerakoan eta beste edozein udaletan diskrezionalagoak eta objektibotasun gutxiagokoak diren irizpideak aplikatuz jardun dezakete, askoz ere balio ekonomiko handiagoa daukaten lursailen gain. Hori guztia dela-eta, beharrezkoa da bi araubideen arteko egokitzapena, toki entitateek lurzoruaren udal ondareko lursailak besterentzean Parlatmentuak Nafarroako Gobernuarentzat ezarri dituen baldintza beretan jardun dezaten. Horretarako, etxebizitza libreak eraikitzeko edo edozein motatako jardura ekonomikoak instalatzeko izateagatik ondare-balio handiagoa daukaten lursailak besterentzeko, enkante publikoa berreskuratzea behar da.

**1. artikulua.** Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeko 273. artikulua honela idatzita geratuko da:

"273. artikulua. Ordainduzko lagapenak.

1. Udalaren lurzoru-ondareko terrenoak besterentzeko honako arau hauek beteko dira:

A) Hirigintza-planeamenduaren arabera etxebizitzetarakoak diren ondasunak besterentzeko honako prozedura hauetako bat jarraituko da:

a) Lehiaketa publikoa, lehiaketa-  
enkantea edo enkantea.

b) Zuzenean, Foru Komunitateko titulartasun publikoko sozietate instrumentalei edo irabazi-

asmorik izan gabe babes publikoko araubideren bati loturiko etxebizitzaren eraikuntza sustatu eta sustapenaren bideragarritasuna bermatzeko bitartekoak eta esperientzia dauzkatela frogatzen duten laguntza-, gizarte- edo sindikatu-izaerako erakunde diren eskatzaileei. Kasu horretan, toki erakundeek behar diren neurriak hartuko dituzte babes publikoko araubideari loturiko etxebizitzaren azken hartzaileek etxebizitza horiek eskuratu ahal izateko baldintzak betetzen dituztela bermatzeko.

c) Administrazioen arteko lagapenak, hurrengo artikuluan arautuak.

Besterentzearen baldintzetan galdutako da hura zilegitzen duten helburuak eta etxebizitza eskuratzeko eskatutako betebeharrak bete daitezela; haien artean, itzulketa, lehentasunez erosteko eskubidea eta atzera-eskuratzeko eskubidea ezarri ahalko dira.

B) Planeamenduak industriarako, merkataritza-erako edo errentagarritasun ekonomikoa erakar dezaketen beste erabilera batzuetarako bideratzen dituen terrenoak enkante publikoz besterentzako dira, toki entitateei aplikatzeko den araubideari jarraituz.

Enkantea esleitu gabe amaitzen bada, urtebete igaro ondoren berriro ekinen zaio besterentzari, prozedura beraren bidez. Bigarren enkante horretan esleipen-hartzaileak ez badago, besterentzea zuzenean egin ahalko da, lizitazioko prezio tipoaz, eta eraikina sei hilabeteko epean hasi eta bere ezaugarrien arabera epean, inoiz ez bi urte baino gehiagotan, bukatzeko betebeharrak ezarri.

C) Ekipamendu eta zerbitzu publikoetarako terrenoak zuzenean eta dohainik laga ahalko zaizkie instalazioen eraikuntza eta kasuan kasuko zerbitzua ematea euren gain hartzen duten erakunde ofizialei.

Partikularrek irabazi-asmorik gabe eman ditzaketen zerbitzuak eta ekipamenduak baldin badira, besterentzea egin ahalko da zuzenean eta dohainik

edo enkantea eginez gero aplikatzeko litzatekeen hasierako prezioa baino prezio baxuagoan, eta itzulketa-klausula izanen du bost urteko epean instalazioa ez egitearen edo hurrengo hogeitun urteetan zehar hura ez mantentzearen kasurako.

2. Besterentzearen prezioak ezin izanen dira izan besterentzen den aprobetxamenduaren hirigintza-balioa baino baxuagoak.

Enkante bidezko besterentzeetan, hasierako prezioa gutxienez hirigintza-balioa izanen da, eta horri gehituko zaizkio planeamendu, urbanizazio eta kudeaketaren ondoriozko kostu proportzionalak, eta egokitzerako beharrezkoak diren ekintza administratibo eta materialetatik eratorritako guztiak.

3. Etxebizitzetarako terrenoak besterentzako baldintza-errietan zehaztuko dira urbanizazio eta eraikuntza obrak egiteko gehieneko epeak, etxebizitza eta lokalak saldu edo alokatzeko prezio eta baldintzak, etxebizitzak eskuratzeko dituztenen ezaugarri sozioekonomikoak, etxebizitzaren kalitatea arkitekturaren eta zerbitzuen ikuspegitik, eta proposamenen bideragarritasuna bermatzeko bitarteko tekniko eta ekonomikoen ezaugarriak".

**Xedapen iragankorra.** Foru Komunitateko Gobernuak eta Udalek, nor bere eskumenekoak diren esparruetan, ezin izanen dute baimendu salmenta, biltegi, zerbitzu eta aparkalekuetarako mila eta bostehun metro koadro baino gehiagoko azalera duen merkataritza guneko eremuak ezar dadin, Merkataritza buruzko Foru Lege Orokorak indarra hartzen ez duen bitartean.

**Azken xedapen lehena.** Esku ematen zaie Nafarroako Gobernuari eta Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariari Foru Lege hau garatu eta betearazteko behar diren xedapenak eman ditzaten.

**Azken xedapen bigarrena.** Foru Lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

## **Foru Lege proposamena, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa zenbatekoa izanen den eta 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontualdian nola banatuko den ezartzen duena**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko apirilaren 9an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa zenbatekoa izanen den eta 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontualdian nola banatuko den ezartzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**Lehena.** Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa zenbatekoa izanen den eta 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontualdian nola banatuko den ezartzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**Bigarrena.** Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2001eko apirilaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrús

### **Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa zenbatekoa izanen den eta 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontualdian nola banatuko den ezartzen duen Foru Lege proposamena.**

#### ZIOEN AZALPENEA

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 2. artikulua ezartzen du Foru Legean agindutakoaren helburua dela bermatzea Konstituzioak aipatzen dituen autonomiaren eta beregaintasunaren printzipioak erabat eraginkorrak izan daitezela, legeak toki entitateei esleitzen dizkien eskumen eta eginkizunak gauzatzeko beharrezkoak baitira.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak, 259. artiku-

luan, xedatzen du, bere eskumenak erabiltzeko eta Nafarroako toki entitateek, dagozkien helburuak lortzeko, Toki Ogasunak behar dituzten baliabideez hornituko dituela. Baliabide horiek Toki Ogasunari buruzko Foru Legearen bidez arautuko direla, Nafarroako toki araubidearen alorra den aldetik, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 18.2 artikuluan aurreikusi bezala.

Horrez gain, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legeko 260. eta 261. artikuluek xedatzen dute Toki Ogasunek Foru Komunitateko tributuetan parte hartuko dutela.

Foru lege hau 2002, 2003 eta 2004. urteetarako da.

Foru lege honek, lehenik, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoaren zenbatekoa finkatzen du, eta, hurrena, zenbateko hori transferentzia arrunt eta bestelako laguntzen kontzeptuan handitzeko sistema, bat etorriko dena Foru Ogasunak tributuen bidez izaten dituen diru-sarrerak portzentajez adierazten duen handitzearekin, behin Estatuko karga orokorretarako eman beharreako deskontaturik.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Legeko 123. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoaren arabera, ekitaldi bakoitzerako izendatutako partearen zenbatekoa transferentzia arruntan, kapital transferentzien eta bestelako laguntzen bidez banatzen da.

Transferentzia arruntak, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legeko 123.3 artikuluan xedaturikoarekin bat, udalen eta kontzejuen artean banatuko dira. Banatzeko formulak zuzentasun eta proportzionaltasun irizpideak kontuan hartu beharko ditu, aipatu printzipio nagusiek zehazten dituzten parametroetan oinarriturik.

Zentzu honetan, foru lege honek Transferentzia Arruntan Fondoaren banaketa bat planteatzen du, berdintasun horizontalaren printzipioa aplikatzen duena; horrela, toki entitate bakoitzaren gastu premien arabera eta ahalmen fiskalaren alderantzira egiten da banaketa, bermatuz, betiere, gastu premia gehiago edo/eta bere baliabideak eskuratzeko ahalmen gutxiago duenak gehiago jasotzen duela.

Banaketa-sistemak hiru maila ditu. Lehenik, Iruñeko udalari diru bat izendatzen zaio, hiriburua-



ren biztanle kopuruari eta gainerako udaletakoei dagokienaren arabera. Bigarrenik, Fondoan geratzen den gainerakoa udalen artean banatzen da. Eta, azkenik, udalei izendatutako dirutzatik kontzejuei dagokiena finkatzen da, kontzeju bakoitzaren biztanle kopuruaren arabera.

Bigarren mailako banaketa-sistema udal bakoitzarentzat finkatutako bi indize hauetan oinarritzen da: bata gastu premiara eta bestea ahalmen fiskalarena. Eta indize horiek lortzeko metodoak Nafarroako toki sektoreari buruz eskura dagoen kontabilitate informazioari prozedura estatistikoak aplikatu zaizkio.

Ahalmen fiskalaren indizeak 0,3135eko ponderazioa du, alegia finantzatu behar diren gastu arruntetik indize horretan adierazirik dauden toki baliabide ekonomikoek osotara egiten dutena. Baliabide horiek honako hauek dira: hirilur eta landalur kontribuzioa, trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga, herrilurren katastro balioa eta jarduera ekonomikoen gaineko zerga.

Gastu premien indizea estatistikoki tokiko gastu arruntean eragin handiena izan duten bost aldagaien konbinazio linealaren bidez lortzen da, haietako bakoitzaren gastuaren azalpen ahalmenaz ponderatuak. Aldagaiak hauek dira: entitate bakoitzeko populazioa, hirilurra netoa, 65 urtetik gorako populazioa, entitate banakatuen kopurua eta herrigunetik kanpo populazioa duten entitate banakatuen kopurua.

Banaketaren hirugarren mailak ezartzen du udalari izendatutako zuzkiduratik kontzejuei dagokien parte. Parte hori lortzeko biderketa hau egiten da: udalaren asignazioa bider % 30 bider kontzejuko biztanleek udalaren populazio osoari buruz duten proportzioa. Parametro horrek adierazten du kontzejuei gaurko eskumen banaketaren arabera dagokien gastuaren batez besteko proportzioa.

Banaketa-formula berriak ez du erabateko hausturarik nahi orain arteko sistemarekin, eta horregatik pentsatu da trantsizio prozedura bermatu bat ezartzea, bi ezaugarri konbinatzen dituen.

Alde batetik, banaketaren bigarren mailako udalei dagozkien asignazioen koefiziente zuzentzaile bat ezartzen da, populazioaren tamainaren arabera handitzen dena, eta udal bakoitzeko biztanleko 0,00002tan finkatu dena; horrela saihesten dira entitateen tamainaren mailaketa arbitrariorik zekartzan jauzi akatsak.

Bestalde, formula eraginkorrago egiteko, kopuruei gutxienezko bermabide bat aplikatzen zaie.

Bigarren bermabide hori hiru maileri aplikatzen zaie.

Lehen eta bigarren mailan udal guztiei urte bakoitzerako gutxienez 2001. urteko ekitaldian jasotako Fondoak bermatzen zaie, 2001. urtean izandako ekarpenen emaitzaren arabera.

Hirugarren mailan kontzeju bakoitzari, gutxienez, lege hau aplikatzen den urte bakoitzerako, 2001. urtean jasotako Fondoak bermatzen zaio.

Kapital transferentzietan dagokienez, haien banaketa 2001-2003rako Toki Azpiegituren Hirurteko Planari buruzko uztailaren 3ko 2/2000 Foru Legean ezarria da, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legeko 123. artikuluko 4. idatzari jarraikiz, bai eta 2001-2003rako azpiegituren plan bereziari buruzko lege proiektuan ere.

Fondoak banatzeko azkeneko kapitulari bestelako laguntzak deritza eta bertan Iruñeko Udalari "Iruñeko Hiriko Hiriburutza Agiria" kontzeptuagatik dagokion zuzkidura, gainerako toki entitateentzako zuzkidura, formula orokorraren bidez banaturik, eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 72.2 artikuluan interes erkideak babestu eta sustatzeko osaturiko toki entitateen federazio edo elkargoentzako laguntza ekonomikoei buruz dagoen aurreikuspena betetzeko zuzkidura agertzen dira.

Bestalde, 2002-2004 urteetan toki itun baterako oinarriak prestatu beharko dira. Itun horren bidez, besteak beste, eskumenen banaketa berria eta toki administrazioaren egoeraren azterketa eginen dira eta toki ogasunei sistema ekonomiko eta finantzario behar bestekoa eta egonkorra emanen zaie. Esparru berri horrek toki ogasunen bideragarritasun ekonomikoa bermatu beharko du eta frogatu subsidiaritatearen printzipioak indarra duela eta aplikatzeko dela Nafarroan: erabakiak hartzea herritarrengandik hurbilen dagoen administrazioak izan behar du bere esku.

## I. KAPITULUA

### 1. artikulua. Fondoaren zuzkidura.

2002ko ekitaldirako, toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte hartzeko Fondorako guztira 28.969.450.080 pezetako zuzkidura ezartzen da, Nafarroako aurrekontu orokorretan agertuko dena.

### 2. artikulua. Fondoaren banaketa.

2002ko ekitaldirako esleituriko parte hartzearen zenbatekoa honela banatuko da:

I. Transferentzia arruntak 18.324.899.704 pezeta.

II. Kapital transferentziak 7.339.102.056 peze-ta.

III. Bestelako laguntzak:

A. Iruñeko Udalari, Hiriburutza Agiriagatik 2.316.750.008 pezeta.

B. Nafarroako gainerako udalei: 955.818.312 pezeta.

C. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari: 32.880.000 pezeta.

**3. artikulua.** Aurrekontuko kontsignazioa.

Nafarroako 2003 eta 2004ko aurrekontu orokoretan, toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte hartzeko fondoaren kontsignazioa hiru ataletan banatuko da: transferentzia arruntak, kapital transferentziak eta bestelako laguntzak.

Kapital transferentzietan dagokien kontsignazioa 7.096.981.000 pezeta izanen da 2002. urterako eta 7.069.200.000 2003. urterako, 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko Planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legean ezarri bezala.

2004. urterako 8.002.334.400 pezetakoa izanen da zenbatekoa, 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko Planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legearen irizpideen arabera, lege honen 3. xedapen gehigarrian ageri denarekin bat.

2003 eta 2004. urteetarako transferentzia arruntetarako eta bestelako laguntzetarako dirutza aurreko artikuluan kontzeptu horietarako 2002. urterako aurrez ikusitakoa izanen da, eta horri erantsiko zaio urtero Foru Komunitateak tributuen bidez jasotzen dituen dirusarreretan aurreikusten den gehikuntzatik heldu den zenbatekoa, eta betiere, gutxienez, Nafarroako kontsumoko prezioen indizea.

## II. KAPITULUA

**4. artikulua.** Hasierako asignazioa Iruñeko Udalarentzat.

Hasiera batean Iruñeko Udalari dirutza hau asignatuko zaio: 2. artikuluko I. atalean aurreikusitako zuzkidurari udal horrek Nafarroako populazio osoari buruz duen biztanle portzentajea aplikatzen sortzen dena.

**5. artikulua.** Gainerako udalen artean banatuko den dirutza.

2. artikuluko I. idatz-zatiko dirutza osoa, Iruñerako asignazioa kendu ondoren, gehi 2. artikuluko B letrako III. idatz-zatian aurreikusitako zuzkidura

hasiera batean Nafarroako gainerako udalen artean banatuko da beren banaketa indize ponderatuekiko proportzio zuzenean.

**6. artikulua.** Gainerako udaletarako hasierako asignazioa.

Udal bakoitzerako hasierako asignazioa hone-lakalkulatzen, banatuko den dirutzari udal bakoitzerako banaketa-indize ponderatua aplikatuko zaio. Banaketa-indize ponderatua, berriz, gastu premien eta ahalmen fiskalaren indizeen arteko diferentzia kalkulatuz lortzen da, honako urrats hauek eginez:

a) Gastu premien indizea gastu premiaren bost aldagai adierazleen konbinazio linealaren bidez lortzen da, haietako bakoitzak gastu horren azalpenak emateko duen ahalmenaren arabera ponderaturik. Erabilitako aldagaiak honako hauek dira:

- Udal bakoitzeko populazioak Nafarroako populazio osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea.

- Udal bakoitzaren hirilurraren azalera netoak Nafarroa osoko hirilurren azalera osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea. Hau da hirilurraren azalera netoa: planoaren araberrako zabaleraren (azalera grafikoaren) eta lurzatie batura gisa duen zabaleraren (azalera alfanumerikoaren) arteko diferentziaren ondoriozkoa.

- Udal bakoitzeko 65 urtetik gorako populazioak Nafarroa osoko 65 urtetik gorako populazio osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea.

- Udal bakoitzean hirigunetik kanpo populazioa duten entitate banakatuen kopuruak Nafarroa osoan hirigunetik kanpo populazioa duten entitate banakatuen kopuru osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea.

- Udal bakoitzeko entitate banakatuen kopuruak Nafarroa osoko entitate banakatuen kopuruari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea.

b) Ahalmen fiskalaren indizea lortzeko, udalen ahalmen fiskala eta ondare ahalmenaren adierazgarri diren bost aldagaien konbinazio lineala erabiliko da, urte eredu baterako aldagai bakoitzari dagokion dirubilketak bost dirusarrera moten dirubilketen kopuru osoari buruz duen pisuaren arabera ponderaturik. Erabiliko diren aldagaiak honako hauek dira:

- Udal bakoitzeko Hirilur Kontribuzioaren likidazio oinarri doituak Nafarroa osorako (Iruña alde

batera utzirik) tributu horren likidazio oinarri doitu baturari buruz egiten duen portzentajea. Oinarriak koefiziente zuzentzaile baten bidez doitzen dira merkatu balioetara, balioak handitzen dituen merkatu baliotik urruntzen diren heinean.

- Udal bakoitzeko Landalur Kontribuzioaren likidazio oinarri doituak Nafarroa osorako (Iruña alde batera utzirik) tributu horren likidazio oinarri doitu baturari buruz egiten duen portzentajea.

- Udal bakoitzeko Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren eskubide likidatuek Nafarroa osorako (Iruña alde batera utzirik) tributu horren eskubide likidatu baturari buruz egiten duen portzentajea.

- Udal bakoitzeko herrilurraren balio katastralak Nafarroa osoko (Iruña alde batera utzirik) balio horien baturari buruz egiten duen portzentajea. Kontzejuak beren mugapean dituzten udalen kasuan, kontzejuetan ez dauden herrilurren balioa bakarrik hartuko da kontuan.

- Udal bakoitzeko jarduera ekonomikoen gaineko zergak Nafarroa osoan zerga horren bidez biltzen den diru kopuruari buruz egiten duen portzentajea, udalen errekaruak kontuan hartu gabe, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea betez eginiko erregistroaren arabera.

c) Gastu premien indizeari ahalmen fiskalaren indizea (0,3135 faktoreaz ponderaturik) kenduz lortzen da udal bakoitzarentzako banaketa-indizea, honako formula honen arabera:

$$FTC: 0,9206 \times PPOB + 0,2118 \times PMA65 + 0,2964 \times PURB + 0,0226 \times PNDISEM + 0,0051 \times PENTSING - 0,1801 \times CTU - 0,0282 \times CTR - 0,0717 \times IAE - 0,0753 \times IVTM - 0,1012 \times VCC$$

Non hau ulertu behar den:

- FTC udal bakoitzaren banaketa-indizea da.
- PPOB udal bakoitzaren populazioak Nafarroako populazio osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea da.
- PURB Udal bakoitzaren hirilurraren azalera netoak Nafarroa osoko hirilurren azalera osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea da. Hau da hirilurraren azalera netoa: planoaren arabera zabaleraren (azalera grafikoaren) eta luzatien batura gisa duen zabaleraren (azalera alfanumerikoaren) arteko diferentziaren ondoriozkoa.
- PMA65 Udal bakoitzeko 65 urtetik gorako populazioak Nafarroa osoko 65 urtetik gorako

populazio osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea da.

- PNDISEM Udal bakoitzean hirigunetik kanpo populazioa duten entitate banakatu kopuruak Nafarroa osoan hirigunetik kanpo populazioa duten entitate banakatu kopuru osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea da.

- PENTSING Udal bakoitzeko entitate banakatu kopuruak Nafarroa osoko entitate banakatu kopuruari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea da.

- CTU Udal bakoitzeko Hirilur Kontribuzioaren likidazio oinarri doituak Nafarroa osorako (Iruña alde batera utzirik) tributu horren likidazio oinarri doitu baturari buruz egiten duen portzentajea da. Oinarriak koefiziente zuzentzaile baten bidez doitzen dira merkatu balioetara, balioak handitzen dituen merkatu baliotik urruntzen diren heinean.

- CTR Udal bakoitzeko Landalur Kontribuzioaren likidazio oinarri doituak Nafarroa osorako (Iruña alde batera utzirik) tributu horren likidazio oinarri doitu baturari buruz egiten duen portzentajea da.

- IVTM Udal bakoitzeko Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren eskubide likidatuek Nafarroa osorako (Iruña alde batera utzirik) tributu horren eskubide likidatu baturari buruz egiten duen portzentajea da.

- VCC Udal bakoitzeko herrilurraren balio katalak Nafarroa osoko (Iruña alde batera utzirik) balio horien baturari buruz egiten duen portzentajea da. Kontzejuak beren mugapean dituzten udalen kasuan kontzejuetan ez dauden herrilurren balioa bakarrik hartuko da kontuan.

- IAE Udal bakoitzeko jarduera ekonomikoen gaineko zergak Nafarroa osoan zerga horren bidez biltzen den diru kopuruari buruz egiten duen portzentajea, udalen errekaruak kontuan hartu gabe, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea betez eginiko erregistroaren arabera.

d) Aurreko idatz-zatian lortutako banaketa indizeak udal bakoitzerako populazioaren tamainaren arabera kalkulatu den faktore zuzentzaile batez ponderatu dira; hain zuzen ere, unitatea gehi populazioaren produktua bider 0,00002 izanen da faktore hori. Udalen batean ateratzen den banaketa indizea negatiboa baldin bada, zero balioa emanen zaio, eta banaketa indizeak gainerako udaletarako birkalkulatuko dira, halako moduan non horien guztien batuketa unitatea bezainbeste izanen den. Banaketa indize ponderatu horixe

aplikatuko zaio banatu beharreko kopuruari, kopuru hori udal bakoitzari hasiera batean dagokiona kalkulatzeko 5. artikuluan ezarritako moduan kalkulatu ondoren, hain zuzen ere.

**7. artikulua.** Bermearen aplikazioa eta udal-tarako behin betiko asignazioa.

1. Toki entitateek transferentzia arrunten kontzeptuan toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondotik 2002, 2003 eta 2004ko aurrekontualdietan jasoko duten dirutza ez da sekula izanen 2001. urtean udaletan kontzeptu horretan jasotakoa baino txikiagoa.

2. Iruñeko Udalari 2002, 2003 eta 2004. urteetan jasotako diru kopurua bermatuko zaio, aurreko idatz-zatian ezarritakoari jarraituz. Hiriburutza Agiriaren kontzeptua araubide hori emateari buruzko abenduaren 2ko 16/1997 Foru Legean ezarritakoaren arabera izanen da.

3. 4, 5 eta 6. artikulua aplikatuz iristen ez direnentzat berme hori efektiboa izan dadin, behar diren kopuruak kenduko dira dagokien bermearen gehikuntzari proportzionalki bermatu zaizkien kopuruak gainditzen dituzten udalei hasiera batean zegozkien kopuruetatik.

**8. artikulua.** Kontzejuentzako hasierako asignazioa.

Beren mugapean kontzejuak dituzten udalen kasuan, aurreko artikulua arabera kalkulatu-tako parteari kontzejuen artean banatzeko zati bat kenduko zaio. Entitate hauen parte biderketa honen bidez lortuko da: udalaren zuzkidura bider % 30 bider kontzejuko biztanleek udaleko populazio osoari buruz egiten duten portzentajea. Gertzen den dirutza da udal bakoitzaren hasierako asignazioa.

**9. artikulua.** Beren mugapean kontzejuak dituzten udaletako bermearen aplikazioa eta behin betiko asignazioaren kalkulua.

1. Kontzejuek eta beren udalak transferentzia arrunten kontzeptuan toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondotik 2002, 2003 eta 2004ko aurrekontualdietan jasoko duten dirutza ez da sekula izanen 2001. urtean udaletan kontzeptu horretan jasotakoa baino txikiagoa.

2. Berme hori erabilgarri egiteko, kontzejuei eta bere mugapean kontzejuak dituen udalari, banaketa-formula aplikatuz lortzen ez badute, 8. artikulua arabera hasiera batean izendatutako-tik behar dena kenduko zaie bermatutakoak baino zenbateko handiagoak lortzen dituzten udal bereko entitateei, beren bermeari buruz duten gehikuntzaren portzio zuzenean.

**10. artikulua.** Erabilitako aldagaiak.

1. Nafarroako Udalei banaketan dagokiena kalkulatzeko premiazko aldagaien balioak lortzeko, foru lege honen eranskinean jasotako iturriak erabiliko dira. Aldagai guztien erreferentzia urtea hau izanen da: banaketa egiten den urteko maiatzaren 1ean Estatistika Institutu Nazionalak udalen populazioaren estatistikaren datu ofizialak dauzkana. Erreferentzia urteko daturik ez bada, dauden azken urtekoa hartuko da.

2. Artikulu honetan ezarritakoa galarazi gabe, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren datutzat hartzen da Toki Administrazioako Departamentuan Toki Ogasunen Foru Legearen arabera aurkeztu behar zen azken ekitaldiko kontuen espedientetik lortzen dena edo bestela ekitaldi horrextako aurrekontuaren likidazio espedientetik lortua, Toki Ogasunen Foru Legeko 227.2 artikuluan eta aurrekontuen eta gastu publikoaren arloan aipatu foru legea garatzen duen 270/1998 Foru Dekretuko 84. artikuluan xedatutakoaren arabera. Aurreko hori ez baldin bada eskuratu, eskura den azken datua eguneratuko da, ehuneko 10eko urteko tasa aplikatuz. Aurreko ekitaldietako daturik ez badago, Nafarroako gehieneko datu per capita hartuko da kontuan, poblazioaren aldagaia- ren arabera.

3. Kontzejuei dagokien zatia kalkulatzeko erreferentzia urtetzat honako hau hartuko da: banaketa egiten den urteko maiatzaren 1ean Estatistika Institutu Nazionalak bai udalen populazioaren estatistikaren datu ofizialak bai Nafarroako Estatistika Institutuak kontzejuen populazioaren estatistikaren datuak dauzkana, bi-biak urte berari buruzkoak betiere.

4. Aurreko zenbakietan ezarritakoagatik ere, banaketaren aldagaietan eragina duten udal edo kontzejuen bereizketa edo anxio prozesuak gertatzen direnean, aldagaien zenbatekoa berriro kalkulatu da banaketa egiten denean duten egoera administratibora egokitzeko, baldin eta egoera administratibo horri buruzko datu ofizialik ez bada.

**11. artikulua.** Ordainketa

1. Toki entitateek Nafarroako Ogasun Publiko-ko tributuetan parte hartzeko fondoko diru-kopuruak lau alditan ordainduko dira ekitaldi bakoitzean, hiru hileko natural bakoitzeko lehenengo hamabostaldian, hain zuzen ere.

2. Lehenengo bi ordainketek aurreko ekitaldian behin betiko harturikoaren ehuneko 25 eginen dute.

3. Hirugarren ordainketan toki entitate bakoitzari dagokion urteko azkeneko asignazioa kalku-

latuko da eta aurreko ordainketei erantsirik, asignazio horren % 75 osatu arteko kopurua ordainduko. Eta gelditzen dena laugarren hiruhilekoa bukatzerako ordainduko da.

4. Udalen eta haien mugapean dauden kontzejuen arteko hitzarmen sinaturik baldin bada, entitate horiei pagatzen zaiena sinatutako hitzarmenean ageri den moduan egiten ahal da, banaketa-formularen aplikazioaren arabera entitate bakoitzari hasieratik dagokiona galarazi gabe.

### III. KAPITULUA

#### Kapital transferentzien asignazioa

**12. artikulua.** Kapital transferentzietarako partearen banaketa.

Kapital transferentzietarako partearen zenbatekoa 2001-2003 eperako Toki Azpiegituren Hirurteko Planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legean eta hori garatzen duten xedapenetan xedaturikoaren arabera banatuko da.

### IV. KAPITULUA

#### Gainerako laguntzen asignazioa

**13. artikulua.** Gainerako laguntzen banaketa.

1. Iruñeko Udalarari "Iruñeko Hiriko Hiriburutza Agiria" delakoagatik eman beharrekoari dagokionez, beste laguntzen partearen zenbatekoa agiri hori ematen duen abenduaren 2ko 16/97 Foru Legean xedaturikoaren arabera arautuko da.

2. Nafarroako gainerako udalei eman beharrekoa foru lege honetako II kapituluaren transferentzia arruntetarako aurreikusitako bezala ordainduko da.

3. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari eman beharrekoa transferentzia arruntentzat foru lege honen 11. artikuluan ezarritako modu berean ordainduko da.

#### Xedapen gehigarriak

1. Toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte-hartzeko Fondo Orokorren transferentzia arruntaren banaketak, 2001ean eginikoak, behin betiko bihurtzen dira.

2. 2004. urterako kapital transferentzietarako zenbatekoak irizpide hauen arabera banatuko dira:

1. 2004ko aurrekontu ekitaldian sartu beharreko obren plana honelaxe osatuko da:

– Plan zuzendariei dagokionez, horietan aurreikusitakoek osatuko dituzte, horien aurrekontuak foru lege honen 3. artikuluan 2004. urterako ageri diren zuzkidurekin bat heldu diren neurrian.

– Toki programazioko azpiegituren obrei dagoenik, lehentasuna izanen dute 2001-2003rako hiru urteko planean sartuta egonik, haien kostua zela-eta fasetan egin zirenek, gehienez ere Nafarroako Gobernuak 2001-2003ko hiru urtekoan obrak sartzeko eman zuen erabakiaren bidez onetsi ziren zuzkiduren heren bateko zenbatekoan, salbu eta obra osagarrien bolumena, lehendabiziko fasean sarturiko azpiegituren amaitzeari begira garrantzi ekonomiko gutxikoa den kasuetan, horiek osorik sartuko baitira. Era berean, eskabide batean baino gehiagotan lehentasunekotzat hartu baina, eskaerak osotara zekarren kostu handia zela-eta hein batean baizik sartu ez ziren obrak, aurreko idatz-zatiko irizpide berarekin sartuko dira. Tratamendu hori bera aplikatuko zaie 2001-2003rako azpiegituren hiru urteko planean garatu daitezkeen plan osagarrietan sartu ziren toki entitateei.

Zuzkiduraren gainerakoa 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planean finantzatu gabe gelditu ziren obretan erabiliko da, lortutako kalifikazioen hurrenkeraren arabera eta bazter utziko dira ezinbesteko arrazoiengatik edo ustekabearen gertatutakoengatik finantzatu ziren obrak.

Halaber, obra planean obligatu ez den zenbatekoaz finantzatu dira ezinbesteko arrazoiengatik edo ustekabeengatik eginiko obrak, 100eko 10eko gehikuntzak, salbuespeneko araubidea finantzatzeko eratu beharreko fondoak eta zerga presio errealeengatik ekarpen gehikuntzak, 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko Planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legean aurreikusitakoak.

– Fondo ekonomikoen banaketa hoberentzeko, obrak hein batean sartu ahalko dira, betiere arazo teknikorik ez dagoenean obra horiek fase batean baino gehiagotan egiteko.

– Behin-behinekoz sartutako toki programazioko obren zenbatekoa 100eko 10, gehienez ere, gehitu ahalko da behin betikoz sartzean.

– 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru legean aurreikusten diren berberak izanen dira aipatu obren finantziatorako kapital transferentzien ekarpen araubidea, eta gai hauei buruzko prozedura arauak: aurkeztu beharreko dokumentazioa, behin-behineko eta behin betiko sartzeak, asignazioen portzentajeak, obren adjudikazioa, ekarpenen entrega, ekarpenen aldaketa, exekuzio epea, iraungitzea, ekarpenen onuradunak, etab.

3. Nafarroako Gobernuak, 2002-2004rako, Nafarroan toki itun bat egiteko oinarriak igorriko ditu Nafarroako Parlamentura, NUKFarekin, Parla-

mentuko taldeekin eta toki entitateekin lankidetzan, toki entitateek garatu eta betetzen dituzten eskumenak eta horien kostua aztertu eta bi administrazioen arteko hitzarmen baterako formula ezar dezan. Toki entitateen eskumen esparrua eta finantziak berrikusiko da.

### **Azken xedapenak**

**Lehendabizikoa.** Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau garatzeko behar diren arau guztiak eman ditzan.

**Bigarrena.** Foru lege honek Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 123.5 artikulua aldatzen duen legea onetsi eta hurrengo hilabetearen hartuko du indarra.

### **ERANSKINA**

Banaketa-formulan aplikatutako aldagaiak eta iturriak

Udal bakoitzeko populazioa. Estatistika Institutu Nazionalak emana, urte bakoitzaren urtarrilaren 1a erreferentziatzat harturik.

Kontzeju bakoitzeko populazioa. Estatistika Institutu Nazionalak emana, urte bakoitzaren urtarrilaren 1a erreferentziatzat harturik.

Udal bakoitzeko 65 urtetik gorako populazioa. Estatistika Institutu Nazionalak emana, urte bakoitzaren urtarrilaren 1a erreferentziatzat harturik.

Hirilur azalera netoa. Planoan agertzen den azaleraren (azalera grafikoaren) eta lurzati batura gisa duenaren arteko diferentzia (azalera alfanumerikoa). Nafarroako Gobernu Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak emana udalen populazioen erreferentzia urte bererako.

Entitate banakatutzat hartzen diren populazio-guneen kopurua. Estatistika Institutu Nazionalak emana.

Populazioa herrigunetik kanpoan duten entitate banakatutzat hartzen diren populazio-guneen kopurua. Estatistika Institutu Nazionalak emana.

Hirilur Kontribuzio Doituaren Likidazio Oinarria. Honako hau da:

Udal bakoitzeko Hirilur Kontribuzioaren Likidazio Oinarria bider merkatuko balioetara doitzeko koefizienteak. Nafarroako Gobernu Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak ematen ditu biak, eta horretarako datuak Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro fiskaletik hartzen ditu, udalen populaziorako erabilitako erreferentzia urte berari buruz.

Udal bakoitzaren Landalur Kontribuzioaren Likidazio Oinarria. Nafarroako Gobernu Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak ematen du, eta horretarako datuak Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro fiskaletik hartzen ditu, udalen populaziorako erabilitako erreferentzia urte berari buruz.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren eskubide likidatuak. Toki Administrazio Departamentura igorritako udaleko kontabilitate likidazioetatik lortzen da. Igorri ez baldin badira, foru lege honen 10. artikuluko 2. puntuan ezarritako irizpidearen arabera kalkulatu da.

Herrilurren balio katastrala. Udaletako populazioarentzako erreferentzia urte berean Udal bakoitzaren herrilurrek duten balio katastrala da. Beren mugapean kontzejuak dituzten udaletako kontzejuen herrilurrak kanpo geratzen dira. Nafarroako Gobernu Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak ematen du, eta horretarako datuak Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro fiskaletik hartzen ditu.

Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren likidazio oinarria, udal errekarurik gabe. Udal bakoitzean jarduera ekonomikoen gaineko zergaren balioak Nafarroako zerga hau dela eta likidatzen diren eskubide guztiei buruz egiten duen portzentajea, (Iruña alde batera utzita), udal errekaruak kontuan hartu gabe, Nafarroako Gobernu ekonomia eta Ogasun Departamentuak eginiko zerrendaren arabera.

## Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko apirilaren 9an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**Lehena.** Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**Bigarrena.** Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2001eko apirilaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena

#### ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak 259. artikuluan xedatzen duenez, Nafarroako toki entitateek beren eskumenak erabili eta helburuak bete ditzaten, Toki Ogasunei behar adina baliabide emanen zaie, Toki Ogasunei buruzko Foru Legeak arauturik, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera Nafarroako toki eraentzari berez dagokion gaia den aldetik.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak partaidekidetzaren printzipioa goratu du eta dirulaguntzaren ideia baztertu du; horrela, partaidetza hori egoteari buruz Konstituzioak agindutakoa betetzen da eta Nafarroako Toki Ogasunen Fondoak, zeina aitzindari baita Espainiako autonomi egituraren, duen partaidetza-izaera behin betiko indartua geratu da. Foru Lege honen bitartez gainditu egin da

Toki Ogasunen Fondoek izan duten birbanatzaile-izaera historikoa, 1943ko urtarrilaren 10eko Legeaz geroztik, harik eta ekainaren 2ko 34/1997 Lege Dekretuaren bitartez Udal Lankidetzarako Fondo Nazionala eratu arte.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen taxuketak abiaburu ditu Nafarroako Toki Administrazioari buruzko ekainaren 2ko 6/1990 Foru Legeko zortzigarren tituluko agindua eta Nafarroako toki entitateen ogasun-baliabideak harmonizatu beharra.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 123. artikulua zehazkiago arautzen du Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetako partaidetzaren norainokoa, eta udal agintaldi bakoitzaren lehen urteko azken hiruhilekoan Nafarroako Gobernuak, Toki Araubideko Foru Batzordeak txostena egin ondoren, Foru Parlamentuari arau-proiektu bat igorriko diola ezartzen du. Arau-proiektu hori kasuan kasuko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrei buruzkoarekin batera igorriko du, eta Toki Entitateek Nafarroako Zergetan parte hartzeko Fondoaren zenbatekoa eta Fondo hori banatzeko formula finkatuko ditu, hurrengo lau aurrekontu-ekitaldietarako, justizia eta proportzionaltasun irizpideen arabera.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko agindua betetzea ezinezkoa izan da 123.5 artikuluari dagokionez; izan ere, hauteskundeetatik sortzen diren Gobernuak ezin ohi dute denborarik izan arazoaz jabetzeko ere, eta are gutxiago horren balizko soluzioez.

Errealitate hori agerian geratu da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legea onetsi zenetik horretarako aukera izan den bi aldietan: 1995-1999 eta 1999-2003 hauteskunde-aldiak.

1995-1999 Legegintzaldian, 1997ko amaieran, abenduaren 30eko 23/1997 Foru Legea onetsi zen. Horren bitartez, 1998 eta 1999ko aurrekontu-ekitaldietan (bigarren hori udal agintaldiaren amaiera-urtea da) toki erakundeek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte hartzeko Fondoaren zenbatekoa eta hori banatzeko formula ezarri ziren. Foru Lege hori 1997ko abenduan onetsi zen; hau da, behar baino bi urte berandua-go, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen arabera.

2000ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 18/1999

Foru Legeak formula denboran luzatu eta aurreko Foru Legean aurreikusitako dotazioa 2000. urterako gaurkotu zuen.

2000ren bukaeran, Nafarroako Gobernuak Foru Lege proiektu bat aurkeztu zuen, 2001-2003 epean toki ogasunek foru ogasunaren tributuetan parte hartzeko Fondoaren zenbatekoari eta hori banatzeko formulari buruz. Baina Foru Lege proiektu hori 1999ko azken hiruhilekoan aurkeztu beharrekoa zen.

Hori dela-eta, beharrezko deritzogu Toki Ogasunei buruzko Foru Legeko 123.5 artikulua aldatzeari, legea errealitate politikoari egokitzeko eta pragmatikoak izateko, halako moldez non legegintzaldiko bigarren urtearen lehen seihilabetekoan Nafarroako Parlamentuari hurrengo lau urteetarako arau-proiektu bat igorriko baitzaio, toki ogasunek Nafarroako zergetan parte hartzeko Fondoaren zenbatekoa eta Fondo hori banatzeko formula zehaztuko dituen.

**Artikulu bakarra.** Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 123.5 artikulua aldatzea. Hona testu berria:

“123. artikulua

5.- Udal agintaldi bakoitzeko bigarren urteko lehen seihilabetekoan, Nafarroako Gobernuak, Toki Araubideko Foru Batzordeak txostena egin ondoren, Nafarroako Parlamentura honako hauek bilduko dituen arau-proiektu bat bidaliko du:

a.- Toki ogasunek Nafarroako zergetan parte hartzeko Fondoaren zenbatekoa hurrengo lau aurrekontu-ekitaldietan.

b.- Udal agintaldiaren hurrengo lau urteetarako zein izanen den aipaturiko Fondo banatzeko formula, artikuluko honetako 3. zenbakiak adierazitako irizpide orokorren arabera”.

#### **Xedapen iragankorra**

2002, 2003 eta 2004rako, salbuespen gisa, berariazko arau-proiektu bat izapidatuko da, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko Fondoari eta toki ogasunen Fondoa 2002, 2003 eta 2004an banatzeko formulari dagokienez.

#### **Xedapen indargabetzailea**

Indarrrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

#### **Azken xedapenak**

**Lehena.** Esku ematen zaio Nafarroako Gobernuari Foru Lege hau garatzeko behar diren arau guztiak eman ditzan.

**Bigarrena.** Foru Lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.





---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Jabeldura, Nafarroako Gobernuak Bardeako tiro poligonoaren etorkizuna dela-eta egin duen politikari buruzkoa**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko apirilaren 9an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroako Gobernuak Bardeako tiro poligonoaren etorkizuna dela-eta egin duen politikari buruzko jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Biltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko apirilaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **JABELDURAREN EDUKIA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babesean, honako jabeldura hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Bardeako tiro-poligonoaren etorkizunari dagokionez egin duen politikari buruzkoa, Osoko Bilkuran eztabaidatua izan dadin:

Zioen azalpena

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen iritziz, Nafarroako Gobernuak hautsi egin ditu Nafarroako Parlamentuarekin zeuzkan konpromisoak, ez baitu 2001eko ekainetik aurrera Bardeako tiro-poligonoa erabiltzen

segitzearen aurka Nafarroak duen jarreraren aitzindari gisa jokatu.

Tiro-poligonoaren etorkizunari buruzko zenbait albiste izan ondoren, badirudi haren kokalekuak Bardea izaten segituko duela, duela hilabete batzuk Defentsa Ministerioak proposatu zituen baldintza beretan; horrela, bada, ondorioztatu beharrekoa da Nafarroako Gobernuak ez duela negoziazioen azken emaitzan inolako eraginik izatea lortu, ez eta Parlamentuaren iritzia behar den lekuetan defendatu ere.

Bardeako tiro-poligonoari loturiko guztia politika orokorreko gai bilakatu da, zeren eta, tiro-poligonoa alokatzeari dagokionaz gain, horren erabilerak zenbait ondorio sozioekonomiko baititu, eta horiek gozamina daukaten herriei ez ezik Erriberako udal ugari ere eragiten diete.

Arrazoi horiek guztiak direla-eta, honako jabeldura hau proposatzen dugu:

Nafarroako Gobernuari jabeldura aurkeztea proposatzen dugu, Biltzarreko Osoko Bilkurari azalpenak eman diezazkion Bardeako Batzarrak Defentsa Ministerioarekin sinatuko duen akordioarekiko izanen duen jarrerari eta arlo honetan Parlamentuarekin hartu dituen konpromisoak bermatzeko eginen dituen ekintzei buruz.

Iruñean, 2001eko apirilaren 5ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Isu eta Luzaideko errepideetan hobekuntza lanak egin ditzan**

### *EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA*

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Isu eta Luzaideko errepideetan hobekuntza lanak egin ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko apirilaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko apirilaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **MOZIOAREN EDUKIA**

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Erregelamenduak xedatutakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Lurralde plangintza egitean lurreko komunikazioak hobetzea oinarri-oinarrizko tresna da ekonomia eta gizarte aldetik kaltetutako eskualdeen dinamizazioa lortzeko.

Hori da, hain zuzen ere, Nafarroako ipar-ekialdearen egoera; izan ere, mendialdean nabarmena da populazioaren atzerakada, eta jarduera ekonomikoak ez du abiadarik hartzen ahal. Erroibar eta Erronkari arteko Pirinio aldeaz ari gara zehazki.

Erroibarrera, Aezkoara, Auritzera eta Luzaidera iristeko N-135 errepidea erabili behar da -Iruñetik abiatu eta Zubirin barrena Erro eta Mezkitzko mendateak zeharkatu behar dira-. Errepide horrek gaur egun duen trazadura ez da XXI. mendeak eskatzen duena. Nafarroako Gobernuak, eskualde hori zeharkatuko bide zuen Frantziarako errepide handi baten aldeko apustua egin zuenez, ez dio gaur arte hura hobetzeari ekin.

Nafarroako Gobernuaren apustu horrek, ordea, kale egin du, Pirinioaz bestaldeko aginta-

riek uko egin baitiote, argi eta garbi gainera, azpiegitura hori eraikitzeari.

Horrenbestez, presakoa da auzia bere osotasunean hartu eta esku hartzea; ahal den neurrian egungo trazadura aprobetxatu eta, Erroko tunela eta Auritz zein Aurizberriko saihebidetuek eginez, errepidea hobetu behar da. Halako esku-hartze batek ahalbidetu egiten luke zalantzarik gabe haren eraginpeko eskualdeak hain beharrezkoa duen garapen sozioekonomikoa.

Eta hori dena 1998tik 2005era bitarteko errepideen plan zuzendaria albo batera utzita, zeren hartan 200 milioi ziztrin proposatzen baitziren errepide horretarako.

Zaraitzu eta Erronkari ibarretara iristeko NA-178 errepidea erabili behar da, Irunberritik abiatu eta Nabaskozen barrena. Hortik aitzina, Zaraitzu ibarrerako irispidea nabarmen hobetu da, Las Coronas mendatean barrena Erronkarira iristeko trazaduraren puska bat bezalaxe. Baina Irunberri eta Nabaskoze bitarteko errepidea hobetu egin daiteke; izan ere, Isu mendatea zeharkatzea gaitz samarra da, erradio eskaseko kurba ugari dago eta.

Errepideen plan zuzendarian aurreikusita zegoen Isu mendatean 200 milioiko jarduketak egitea 1999an. Bada, epea iragan da, han ez da jarduketarik egin eta ekonomia eta gizarte aldetik kaltetutako ibar horietako irispideak eskasak dira oraindik ere.

Hori dela-eta aurkeztu du gure taldeak ondoko erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hainbat arinen egin ditzan hobekuntza lanak:

1. NA-178 errepidean, Isu mendateko bidez-tatian.

2. N-135 errepidean, Zubirin barrena doan Iruñea-Luzaide errepidean alegia. Ondoko jarduketak egin daitezke:

- Trazadura berria, Zubiriko Magnesitas eta Zubiri (Otsakain) bitartean hasi eta Urrotz-Ero errepidearekin bat egin arte; Ero mendatea ekiditeko tunela egin liteke.

- Saihebidetuek Bizkarreta-Gerendiain, Aurizberri, Auritz eta Luzaiden.

• Hirugarren erreia, Ibilgailu motelentzako, eta trazadura osoa egokitzea.

Iruñean, 2001eko apirilaren 3an

• Tunela Ibañetako mendatean.

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

## **Mozioa. Horren bidez, Gorte Nagusiak eta Estatuko Gobernuak premiatzen dira hauteskunderen gaineko legeria aldatzera, gizonen eta emakumeen hautagai eta hautetsi izateko aukera berdina izan ditzaten**

### *NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA*

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Gorte Nagusiak eta Estatuko Gobernuak premiatzen dira hauteskunderen gaineko legeria aldatzera, gizonen eta emakumeen hautagai eta hautetsi izateko aukera berdina izan ditzaten".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko apirilaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentarien zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko apirilaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **MOZIOAREN EDUKIA**

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran izapida dadin:

XX. mendeko azken urteetan gizarte-aldaketa garrantzitsu bat gertatu da, emakumeen prestakuntza eta lanean lortu duen presentziaren eraginez; izan ere, lehenago gizonentzat soilik gorde-ta zegoen gizarte-eginkizun bat bereganatu dute. Bi sexuen gizarte-eginkizunak elkarri hurbiltzen ari zaizkiola errealitate bat da, eta horren erakusgarri da gizartearen gainditzen ari dela hertsiki gizonenak edo emakumeenak diren eginkizunei buruzko ideia. Gizartean emakumeak lortzen ari diren indarra errealitate aipagarri bilakatzen ari da sexuen baliokidetze prozesu batean, zeina gizar-

teko aldaketarik garrantzitsuenetakoa izaten ari baita. Dena den, zuzenbideak berdintasuna bermatzen duen arren, errealitatean ez da halakorik lortu aukera-berdintasunari, populazio aktiboan lorturiko presentziari, lanaren ondoriozko ordain-sariei, langabeziari eta laneko prekarietateari, promozio-gaitasunari eta familiaren baitako eginkizunak betetzeari dagokienez. Gainera, pobrezia-egoerak sarritan emakumeak jasaten dituzte.

Emakumeak gizarte-bizitzan lorturiko presentziak bazterkeria eta txokoratzea jasan zueneko epe historiko luze bat gainditu dela adierazten du. Epe horretan jasandakoak sentiberatasun berezia ematen dio antzeko fenomenoak ulertu ahal izateko. Horregatik, emakumeak bazterkeria eta txokoratzearen logika hura amaitu dela bermatzen du, eta berezkoago du ezberdinen integrazioa, aniztasunaren onarpena eta mestizajerantzko joera. Balio horiek ekarri eta praktikan jartzea gizarte-eraldaketarako tresna izanen da.

Emakumearen eskubide zibil eta politikoen erabateko lorpena ez da gauzatu bozkatua izateko eskubide edo sufragio pasibo deritzon garrantzizko presentzia erreala izatearen bidetik. Lehen zailtasuna etxeko lanak hein ezberdinean banatzean datza; izan ere, horrek oztopatu egiten du emakumeak gizarte-jardueretan eta erantzukizun politikoetan sarbidea edukitzea. Bizitza politikoan presentzia lortzeko arazoak gizarte-bizitza guztian eragiten du, eta konponbideak bilatu behar izaten dira familiako lanak arintzeko bitartekoak ezartzearen ildotik, hala nola haurtzaindegitarako ekipamendu kolektiboak, ordutegi malguak, dirulaguntzak eta familia-politika "feminista" bat, zeinak haur txikiak zaindu behar diren arazoari erantzun beharko baitio amak laneko, lanbideko eta gizarte bizitzan parte-hartze aktiboa izan nahi duenean.

Berriki, Frantziako Legebiltzar Nazionalak gizon eta emakumeek hauteskunde-ordezkaritza eta hautetsien karguak berdintasunez eskuratzearen printzipioa ezarri du (ekainaren 6ko 2000-243 Legea). Proiektuak sexuen parekotasuna lortu nahi du, 2001eko udal hauteskundeetatik aurrera alderdi politikoek euren zerrendaren %50 emakumez osatuta izan dezaten, ezezkoan botoen eta eserlekuen araberrako laguntza publikoak hein handian galtzearen arriskupean. Horretarako, hauteskunde-zerrenda bakoitzerako xedatu da sexu bakoitzeko hautagai-kopuruen arteko erlazioa batekoa baino handiagoa ezin izatea eta, bestalde, sei hautetsiz osaturiko talde bakoitzean sexu bakoitzeko hautagai-kopuruak berbera izan behar duela eta hautagaiak elkarrekin txandakaturik egon behar dutela.

Alderdi kontserbadoreek kritikatu egin dute Frantzian "demokrazia paritarioaren" alde eginiko proposamena; izan ere, berdintasuna eta diskriminaziorik eza goratu zituen herrialdean "diskriminazio positiboaren" printzipioa ezartzea emakumearentzat diskriminatzailea dela esan baitute. Bazterturiko gutxiengoaren integrazioa errazteko "ekintza positiboko" sistemetakoa bat da hori, eta bizitza sozial, ekonomiko eta kultureko esparru guztietan (de factozko) desberdintasunak murriztea du xede. Atzera begirako argudioetan (hala nola berdintasunerako eskubidearen urraperanak) eta aurrera begirakoetan oinarritzen da, aukeraberdintasuna lortu eta sexuaren edo arrazaren

araberrako estereotipo diskriminatzaileak gainditzeko. Ildo horretan, 1976ko otsailaren 9ko 76/207/EEE zuzentarauak, tratamendu-berdintasunari buruzkoak, sustapen-neurriak ezarri zituen, emakumeak administrazio publikoetan sar zitezten errazteko.

Gaur egungo gizartean beharrezkoa da oraindik ere diskriminazio positiboa, edo alderantzizko diskriminazioa, emakumearen aukera-berdintasun erabatekoa lortzeko eta gizarte berdinzale egiazkoa izateko. Gaur egun, mundua auzo den garai honetako gizartean, biztanleriaren zati garrantzitsu batek bere identitatea bilatzeko sorturiko mugimendu gisa agertzen zaigu feminismoa.

Hori guztia dela-eta, honako erabakia har dezala proposatzen diogu Nafarroako Parlamentuari:

"Nafarroako Parlamentuak Gorte Nagusiak eta Estatuko Gobernua premiatzen ditu hauteskundelegedi orokorra alda dezaten, gizon eta emakumeen berdintasun printzipioa ezartzeko, hauteskundeetan baldintza beretan parte hartu eta hautespen-karguak berdintasunez eskuratzeari dagokionez, halako moldez non hauteskunde guztietako zerrendetan sexu bakoitzeko hautagai-kopurua bera izanen baita, bai osoki harturik bai tarteka, eta sexu bakoitzeko hautagaiak txandakaturik egonen baitira".

Iruñean, 2001eko apirilaren 2an

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

## **Mozioa. Horren bidez, Ebroko Konfederazio Hidrografikoa, Nafarroako Gobernua eta Itoizko Koordinakundea premiatzen dira lanerako mahai bat era dezaten txosten berri bat eskatzeko Itoizko balizko hondamendi-arriskuei buruz**

### **IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Ebroko Konfederazio Hidrografikoa, Nafarroako Gobernua eta Itoizko Koordinakundea premiatzen dira lanerako mahai bat era dezaten txosten berri bat eskatzeko Itoizko balizko hondamendi-arriskuei buruz".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko apirilaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea,

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Herrilan eta Azpiegituretako Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko apirilaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**MOZIOAREN EDUKIA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Herrilan Batzordean eztabaida dadin:

Martxoaren 27an izan ziren Herrilan Batzordearen lan-bileran Arturo Rebollo eta Antonio M. Casas Sainz jaunen agerraldiak. Lehenbizikoa bide ingeniaria da, eta Itoizko urtegiak dituen balizko hondamendi-arriskuei buruzko txosten analitiko bat egin du. Bigarrena Zaragozako Unibertsitateko Lur Zientzien Departamentuko irakaslea da, eta azterlan bat egin du, Itoizko urtegiaren atakan isurialdeak lerratzeari buruzkoa. Biek, euren azterlanen eduki eta ondorioei buruzko txostena aurkeztu zioten Batzordeari.

Txosten horietan berretsitako ondorioa zen Itoizko urtegia betetz gero hondamendiren bat gertatzeko arrisku larria erakartzen duten baldintzak betetzen dituela urtegi horrek.

Halaber, apirilaren 4an Parlamentuan Nafarroako Gobernuaren Herrilan kontseilariaren agerraldia izan zen; besteak beste, Ebroko Konfederazio Hidrografikoan eta bertako teknikarien lanean konfiantza osoa duela adierazi zuen, eta urtegia betetzeko planak aldatzeko Nafarroako Gobernuak inolako erabaki edo neurririk hartuko ez duela iragarri zuen.

Bestalde, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak ez die Arturo Rebollo eta Antonio M. Casas Sainz jaunek eginiko azterlanei erantzun, eta horiek gezurtatzeko azterlan berririk ere ez du aurkeztu; zer esanik ez, hori dela-eta, ziurgabetasuna eta

kezka sortzen ari dira urtegia dagoen zonan bizi diren pertsonengan.

IUN-NEB Parlamentuko Taldean beharrezkotzat jotzen dugu urratsak ematea herritarrak lasaitzeko eta betetzearen ondorioz egon litezkeen balizko hondamendi-arriskuei dagokienez Itoizko urtegiaren egoera zein den behin betiko argitzeko. Ildo horretatik, gure ustez egokia litzateke teknikari independente eta prestigiodunek Itoizko balizko hondamendi-arriskuak eta haien balizko konponbideak aztertu eta haiei buruz iritzia emateko txosten berri bat egitea.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

1.- Nafarroako Parlamentuak Ebroko Konfederazio Hidrografikoa, Nafarroako Gobernu eta Itoizko Koordinakundea premiatzen ditu lanerako mahai bat era dezaten, zenbait teknikari independente eta prestigioduni Itoizko balizko hondamendi-arriskuak eta haien balizko konponbideak aztertu eta haiei buruz iritzia emateko txosten berri bat egin dezaten eskatzeko.

2.- Nafarroako Parlamentuak Ebroko Konfederazio Hidrografikoa premiatzen du Itoizko urtegia betetzeko lanak eten ditzan eta ez diezaien berriz ekin aipaturiko txostena bukatu eta argitaratu bitartean.

3.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du Ebroko Konfederazio Hidrografikoari eta Gobernu Zentralari Itoizko urtegi betetze-lanak aipaturiko txostena bukatu eta argitaratu bitartean geraraz ditzaten galdatzeko.

Iruñean, 2001eko apirilaren 4an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da neurriak har ditzan telefonia mugikorreko antenak jartzearen inguruan**

### *FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA*

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da neurriak har ditzan telefonia mugikorreko antenak jartzearen inguruan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko apirilaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean

argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko apirilaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**MOZIOAREN EDUKIA**

Parlamentuko Askotariko Taldeko eledun Milagros Rubio Salvatierra andreak jarraian agertzen den mozioa izapida dadila eskatzen du:

Zioen azalpena:

Antenaz hornituriko telefonia mugikorrek estazioen hedapena kezka sakona pizten ari da, urteak direla, haien ingurumarietan bizi diren giza taldeetan.

Hala eta guztiz ere, haiek sorturiko eremu elektromagnetikoei buruzko datuen berri emate publikorik ez da izan. Datu horiek alderatu ahalko lirake osasun publikoari buruzko araudiak finkaturiko balizko arriskuaren atalaseekin.

Horregatik, GSM sarea osatuz eta trinkotuz joan ahala, eta UMTS sarearen atarian edo hastapenetan gaudela, oinarrizko estazioen inguruetan sorturiko erradiazio-maila zenbatekoa den ziur jakiteko behar diren neurketak egitea interes publikoko kontua da.

Gogoan izan behar dugu Telekomunikazioei buruzko 11/1998 Lege orokorra emisio erradioelektrikoen eraginpeko esposizio-mugei dagokien garatzeko erregelamendua onesten duen Errege Dekretuaren Proiektuari alegazioak aurkezteko epea orain dela denbora gutxi amaitu dela.

Erregelamendu proiektu horren testua oraindik behin betikoa izan ez arren, 12. eta 13. artikuluetan esaten du beharrezkoa dela kokalekuen balizko arriskuak eskueran dauden datuen arabera ebaluatu behar direla, eta, horretarako, behar diren irizpide teknikoak eta osasunekoak finkatu behar direla.

Aurreko horretatik ondorioztatzen da finkaturiko irizpideak noraino bete diren ebaluatzea ahal-

bidetzen duten datu enpirikoak edukitzea komeni dela, hartarako enpresa operatzaileen menpean egon gabe.

Bestalde, Europar Batasuneko Kontseiluaren 1999/7/12ko Gomendioak, VI. puntuari, arlo honetan ikerketa-programak sortzearen alde egiten du, eta programa horien artean sartzen da, logikoa denez, balizko arriskuak ebaluatzeko xedea duten neurketa-lan sistematikoak egitea.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hauek aurkeztu ditut, Biltzarreko Osoko Bilkuran eztabaida eta bozka daitezten:

Erabaki proposamenak:

1.- Nafarroako Gobernua behar diren neurriak har ditzan premiatzea, azterlan sakon bat egiteko Nafarroan kokaturiko eta eraikin publiko edo pribatuetan eta/edo jendea bizi edo pasatzen den lekuetatik hurbil instalaturiko Telefonia Mugikorren Oinarrizko Estazio deritzen instalazioek emitituriko erradiazio elektromagnetikoari buruz.

Egin beharreko neurketek potentzia-dentsitateko balioak mikroW/cm<sup>2</sup>-tan eta/edo eremu elektrikoaren balioak V/M-tan adierazi beharko dituzte, etxebizitzetatik eta haien ondoan dauden zona jendetsuetatik hurbil, eta baita eraikinen barnean ere. Neurketa horiek homologatuak izan beharko dute, eta, beraz, legez baliodunak.

Azterlan hori Osasun Publikoaren Institutuak egin beharko du, eta, behar diren teknikariak ez baditu langileen artean, telefonia mugikorren operatzaileetan zuzeneko interesa duen inongo konpainiarekin zerikusirik ez duen enpresa edo erakunde batek.

Iruñea, 2001ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Itoizko urtegia betetzeko aurreikusitako lana geldiaraz dezan**

### *EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA*

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak ondo ko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Itoizko urtegia betetzeko aurreikusitako lana geldiaraz dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko apirilaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen

aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak

aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko apirilaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### MOZIOAREN EDUKIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Biltzarreko Osoko Bilkuran eztabaida eta bozka dadin:

Itoizko urtegiaren segurtasuna auzitan jarri dute prestigio handiko bi adituk, Antonio Casas eta Antonio Rebollo jaunek, eginiko bi txosten teknikorik. Duela gutxi Parlamentuko agerraldi batean izan dira bi jaun horiek, gaiari buruz daukaten ikuspegia azaltzeko.

Euren azalpenean, bi teknikariek Itoizko urtegiaren arrisku haien ustez begi-bistakoei buruzko ohartarazpenak egin zituzten. Azalpen horretatik, haien txostenetatik eta bi aditu horiek euren lanbidean duten esperientzia eta prestigiotik, Euskal Herritarrok-ek ondorioztatzen du milaka pertsonaren segurtasuna bermatu ahal izateko aintzat hartu beharrekoak diren arriskuak daudela.

Urtegiaren eraikuntzan zeresana daukaten Administrazio Publikoek (Ebroko Konfederazio Hidrografikoak eta Nafarroako Gobernuak) kontraxosten gisako erantzun teknikorik eman ez izanak ziurgabetasun-egoera bat sortzen laguntzen du, eta hori argitu beharra dago.

Horregatik, kontraxostenik ez dagoela ikusirik eta, antza, horrelakorik egiteko asmorik ez dagoe-

nez, beharrezko deritzogu, sorturiko egoera dela-eta, hirugarrenen arbitraje batera jotzeari, bi alderdiek hala onarturik, gaia argitzeko eta ziurtatzeko. Zeresana daukaten administrazio publikoak euren jarrerari buruz hain ziur daudenez, hirugarrenen arbitraje batek ez lieke inolako beldurrik eragin beharko, eta horrek posible egingen luke iritzi publikoaren aurrean sorturiko ziurgabetasun-irudipena leuntzea.

Bestalde, eztabaida teknikoak piztu denez gero, gauza zentzuzkoa da urtegia betetzeko aurreikusitako lanak geraraz daitezen eskatzea lan horien arduradun den Administrazioari. Hirugarrenen arbitrajearen zain horrela gerarazteak lasaitasun apur bat ekarriko luke une honetan gizarte-alar-mako egoera honetara.

Azaldutako guztiagatik, Parlamentuko gure taldeak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Itoizko urtegia betetzeko aurreikusitako lanak obraren segurtasuna frogatu bitartean gerarazteko beharrezkoak diren urrats guztiak egin ditzan erakunde egokietan.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du erakunde egokietan beharrezkoak diren urratsak egin ditzan Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin eta Itoizko Koordinakundearekin hitzarturik hirugarrenen arbitraje bat kontratatzea erabaki dezaten, Itoizko urtegiaren segurtasunari buruz irizpen bat emateko.

Iruñean, 2001eko apirilaren 5ean

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Tuteran, Ebro gainean, beste zubi bat egiteko azterlan bat presta dezan**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA*

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Tuteran, Ebro gainean, beste zubi bat egiteko azterlan bat presta dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko apirilaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean

argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Herrilan eta Azpiegituretako Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko apirilaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués



**MOZIOAREN EDUKIA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak honako mozio hau aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuko Herrilan Batzordean eztabaida eta bozka dadin. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Tuteran Ebro ibaiaren gaineko bigarren zubia eraikitzeko azterlan bat berehala presta dezan.

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Tuteran Ebro ibaiaren gaineko bigarren zubia eraikitzeko azterlan bat berehala presta dezan.

2.- Azterlan hori egin bitartean –eta presaz egin dadila eskatzen da, horretarako 2001erako aurrekontuan bai baitago ekarpen bat, behar den lerroan, Parlamentuko Talde Sozialistaren ekime-

nez— ez dadila eskualde horretako beste zubi batzuei lehentasuna eman diezaiekeen eta “de facto” Tuterako bigarren zubi hori eraikitzea ezinezko egin lezakeen jarduerarik egin.

3.- Tuterako bigarren zubiari buruzko azterlan amaitu ondoren, eta ekintzak lehentasunen arabera behar bezala antolatzeko, beste azterlan bat egin dadila, trafikoaren antolamendua eta eskualde horren garapena Ebro ibaiaren gaineko zubien baitan ikertzeko. Moziogilearen aburuz, zentzuzkoa dirudi, betiere, Ebroren gaineko Tuterako bigarren zubiari Tuteratik Cabanillasarako errepidea eginez ekiteak lehenbizi, herri horretara Tute-  
ra eta Fontellas arteko beste ertzetik iritsi aurretik.

Iruñean, 2001eko apirilaren 6an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Gabarderalen igerileku bat eraikitzeke dirulaguntzari buruzko galdera**

*FORU PARLAMENTARI FÉLIX M<sup>a</sup> TABERNA MONZON JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko apirilaren 9an egindako bilkuran, foru parlamentari Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón jaunak Gabarderalen igerileku bat eraikitzeke dirulaguntzari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko apirilaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN EDUKIA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Gabarderaleko Kontzejuak bost urte baino gehiagoz eskatu dio Nafarroako Gobernuari igerileku bat eraikitzeke dirulaguntza; horretarako,

kontzejuak behar diren baldintza tekniko guztiak igorri ditu. Hala eta guztiz ere, Nafarroako Gobernuak dirulaguntza ukatu dio. Ukoaren arrazoiak orokorrak dira; hain zuzen ere, "jarduketa-eremuetan ezarritako oinarrizko irizpideak ez betetzea".

Horregatik, hauxe jakin nahi da:

– Zergatik kontzeju horrek ez ditu betetzen igerileku bat eraikitzeke dirulaguntza emateko oinarrizko irizpideak?

– Zer neurri hartu beharko lirateke diruz laguntzeko moduko jardueren programan sartu ahal izateko?

– Hurrengo laguntzei begira, irizpide hori aldatzerik ba al dago?

Iruñean, 2001eko martxoaren 30ean

Foru parlamentaria: Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón

---

## **Itunpeko irakasleen lansariak hobetzeari buruzko galdera**

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko apirilaren 9an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak itunpeko irakasleen lansariak hobetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko apirilaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN EDUKIA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari:

Nafarroako Parlamentuak erabaki proposamen bat onetsi zuen 2000n, zeinean Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen ordainsariak eta

ordutegiak homologatzeko prozesu batean aurrerapausoak eman zitzaizkion eta ikastetxe itunduen sareko langileentzat hitzarmen autonomiko bat egin zezan. Bestalde, Nafarroako Gobernuak itunpeko irakaskuntzan ordezkariarik handiena daukaten sindikatuarekin akordioak erdiestea xedatzen zen, aurretik azalduko gaien buruz eztabaidatzeke.

Nafarroako Gobernuak itunpeko irakaskuntzako ordezkariarik handieneko sindikatuarekin akordio bat sinatu zuen, eragin ekonomikoak 2001ean izanen zituen. Dagoeneko apirilean gaude, eta itunpeko irakasleek ez dute inolako gehikuntzarik izan euren nominetan.

Errealitate hori ikusirik, hauexek jakin nahi da:

1.- Nafarroako irakasle itunpekoen soldata hobetzeari buruz SEPNA sindikatuarekin sinaturiko

akordioko konpromisoa noiz betetzeko asmoa dauka Nafarroako Gobernuak?

2.- Itunpeko irakasleen soldata hobetzeari dagokionez Nafarroako Gobernuak harturiko konpromisoei aurre egiteko adina diru-kopuru jasotzen al du Nafarroako Aurrekontu Orokorrek?

3.- Itunpeko irakasleen --eta, bereziki, bigarren hezkuntzako-- ordutegi-homologazioa ezartzeke aurrerapausoak noiz emateko asmoa dauka Nafarroako Gobernuak?

4.- Nafarroako itunpeko irakaskuntzarako hitzarmen autonomiko bateranzko aurrerapausoak emateko elkarrizketak hasi al dira, Nafarroako Parlamentuak onetsitakoari jarraituz?

Iruñean, 2001eko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

## Nafarroako Gobernuaren eraikinetan segurtasun eta zainketa zerbitzuak emateari buruzko galdera

### EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko apirilaren 9an egindako bilkuran, foru parlamentari Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak Nafarroako Gobernuaren eraikinetan segurtasun eta zainketa zerbitzuak emateari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galde-gileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko apirilaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Aldizkari Ofizialean berriki argitaratu da Barne zuzendari nagusiaren abenduaren 26ko 1899/2000 Ebazpena. Haren Bidez Nafarroako Gobernuaren hainbat eraikinetako 2001eko segurtasun- eta zainketa-zerbitzuetarako kontratuak adjudikatu ziren.

Adjudikazioaren prezioak 262.534.237 pezeta egiten du guztira; zenbateko handia, batez ere, kontuan hartzen badugu foruzainen eginkizunetako bat dela Foru Komunitateko erakundeen men-

peko eraikin eta instalazioetako segurtasun- eta zainketa-zerbitzuez arduratzea.

Horiek horrela, Parlamentuko talde honek honakook jakin nahi ditu:

1.- Segurtasun enpresa pribatu horiek kontratatu beharrean, zergatik ez ditu Foruzaingoak babestu eta zaindu eraikin eta instalazio horiek?

2.- Zer irizpideri eman dio garrantzi gehien Nafarroako Gobernuak Foruzaingoaren eginkizun diren lanak segurtasun enpresa pribatuei esleitzeko?

3.- 1995etik honat, zenbat kontratu adjudikatu dira Nafarroako Gobernuaren eraikinetako segurtasun- eta zainketa-zerbitzuetarako? Adierazi zeintzuk izan diren, urte bakoitzean, zerbitzuetako eraikinak, adjudikazio hartzaileak, eta horiek jasotzen dituen dirua.

4.- Asmorik al du Nafarroako Gobernuak 2002an lehiaketa publikora ateratzeko berriro zerbitzu horiek, edo, oraingoan foruzainek egiten dituzte?

5.- Nafarroako Gobernuak ba al du zabaltze-

planik Nafarroak Gobernuaren eraikinetako segurtasun- eta zainketa-zerbitzuak, epe laburrean edo ertainean, Foruzaingoak egin ditzan?

Iruñean, 2001eko apirilaren 4an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

## Herriguneetan dauden azien-ustiatzei buruzko galdera

*FORU PARLAMENTARIA JOSÉ MARIA AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko apirilaren 9an egindako bilkuran, foru parlamentari foru parlamentaria José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak herriguneetan dauden azien-ustiatzei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko apirilaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### GALDERAREN EDUKIA

EA/PNV Parlamentuko Taldeari atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako galdera egin dio Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariari:

Abereen Osasunari buruzko azaroaren 10eko 11/2000 Foru Legeko lehenbiziko xedapen iragan-korrek ezartzen duenez, 2003ko abuztuaren 7an herriguneetan izan eta jarduera sailkatuaren baimena edo irekitzeko baimena edo horren pareko baimen administratiboa falta duten azien-ustiatzeiek, edo honetan ezarritakoari lotzen ez zaizkionek (non ez dagoen Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren adostasun-txostenen bat) ez dute jasotzen ahalko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak

Nafarroako aurrekontu orokorren kargura edo Nekazaritzako Orientazio eta Bermerako Europako Funtsaren kargura abeltzaintzarako ematen duen laguntza publikorik.

Hasieran ezarritako epea –2001ean amaitzen zena– luzatzea zinez positiboa bada ere, egia da, bestalde, "behi eroen" eritasuna hain bortizki agertu izanaren ondorioz jarrera aktiboa hartu behar dela horrelako erabaki batek pertsona askorentzat eta euren ekonomientzat ekartzen dituen mota ezberdinetako zalantzak argitzen eta arazoak konpontzen saiatzeko.

Horregatik, garrantzitsu deritzogu honako hauek ezagutzeari:

1.- Gaur egun egoera horretan zenbat ustiatzei dauden ba al daki departamentuak? Datu horiek izan nahi genituzke, posible bada.

2.- Kasuan kasuko udalarekin baterako ekin-tzarik egin al du, Nafarroako herritar askorentzat arazo bilakatu den hau txukuntasunez konpontzeko?

3.- Ildo horretatik inolako ekintzarik aurki egiteko asmorik dauka?

4.- Departamentu horrek uste du aktiboki parte hartu behar dueneko arazo bat dela hau, ala, aitzitik, kaltetuaren eta bere udalaren artean bai-zik konpontzekoa ez den arazo bat dela uste du?

Iruñean, 2001eko apirilaren 5ean

Foru parlamentaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

## Vinsako zuzendari kudeatzailearen lanpostua betetzeko hautapen prozesuari buruzko galdera

### EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko apirilaren 9an egindako bilkuran, foru parlamentari Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak Vinsako zuzendari kudeatzailearen lanpostua betetzeko hautapen prozesuari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko apirilaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### GALDERAREN EDUKIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Bilzarreko Erregelamenduak xedatuaren babesean, honako galdera hauek egin ditu, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak idatziz erantzuteko:

Iazko irailean Vinsa enpresa publikoko zuzendari kudeatzaile izendatu zuten Ana Saldaña Fernández andrea.

Izendapen horren inguruan, beranduago izandako gertaera batzuek --guztiok ezagutzen ditugunak-- dimisioak eta are ikerketa judizialak eragin dituen polemika bat erakarri dute, eta polemika horrek zerikusi handia du Vinsa enpresa publikoarekin.

Hain zuzen ere, aipaturiko izendapenari eta izendatu duten pertsonaren egoera pertsonalari dagozkion ezaugarri batzuk, indarreko legediaren arabera legezkoak izan arren --enpresarekin eta Nafarroako Gobernuarekin lotura daukaten pertsona batzuek adierazi duten bezala--, etikaren eta politikaren ikuspegitik erabateko irrazionaltasunaren ertzean koka daitezke, inondik ere.

Hori guztia dela-eta, zenbait puntu argitu beharra dago, eta, hortaz, Parlamentuko gure taldeak honako galdera hauek egin nahi ditu:

1.- Vinsa enpresako zuzendari kudeatzailearen lanpostua betetzeko xedez Human enpresak hau-

tapen-prozesurik egin al du? Baiezkoan, atxiki bekio erantzunari prozesu horretako behin betiko txostena, izendapena proposatzen duena.

2.- Zenbateko kostua izan du lan horiek egiteak? Atxiki bedi fakturaren kopia.

3.- Saldaña Fernández andrea hautapen prozesu horretan proposaturiko hautagaien artean al zegoen?

4. Saldaña Fernández andrea Larcovi sustapen-enpresa pribatuko akzioduna al da?

5.- Baiezkoan, enpresako akzioetan duen partaidetzaren ehunekoa zenbatekoa da?

6.- Partaidetza hori zer diru-kantitatekoa zen izendapenaren egunean, estimazioen arabera?

7.- Vinsa enpresa publikoko zuzendari kudeatzaileak Vinsarekin printzipioz lehian dagoen enpresa pribatu batean interes ekonomikoak izateari buruz zer ikuspegi dauka Nafarroako Gobernuak?

8.- Saldaña Fernández andrearen jarduera beste enpresa batzuetan izan litzakeen interes ekonomikoek baldintzatuko ez dutela nola bermatzeko asmoa dauka Nafarroako Gobernuak?

9.- Nafarroako Gobernuaren aburuz ez al zatekeen zuzenena izanen, etikaren eta politikaren ikuspegitik, postu hori betetzeko arlo horretako beste enpresa pribatu batzuetan inolako interes ekonomikorik, ez zuzenik ezta zeharkakorik ere, ez duen pertsona bat izendatzea?

10. Azkenik, pertsonen intimitatearekiko errespeturik zorrotzenaz, hauxe galdetu behar da: Saldaña Fernández andreak bere ondare- eta lanbide-egoeraren berri ematean jakinarazi al du arlo horretako enpresa pribatuetan interes ekonomikoak dauzkaten pertsonekin ahaidetasun-loturarik edo maitasun-harremanik duen?

Iruñean, 2001eko apirilaren 5ean

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

## Foruzaingoa Korrika dela-eta bide-segurtasuna zaintzen ez aritzeari buruzko galdera

### EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko apirilaren 9an egindako bilkuran, foru parlamentari Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak Foruzaingoa Korrika dela-eta bide-segurtasuna zaintzen ez aritzeari buruz egindako galderaren bide-rapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko apirilaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### GALDERAREN EDUKIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Bilzarreko Erregelamenduak xedatuaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzuteko:

Apirilaren 4tik aurrera Korrika Nafarroako lurra zeharkatzen ari da. Herri-mobilizazio horrek, guztiok dakigun bezala, euskararen aldeko erreibindikazioa egitea du xede, eta errepideetan zehar eginiko errelebo-lasterketan milaka pertsonak parte-hartze aktiboa izatea du oinarri.

Aurtengoan, Korrikak ehundaka kilometro eginen ditu Nafarroan zehar; hala eta guztiz ere, egiatzatu ahal izan da, eta halaxe salatu dute ekintza honetako antolatzaileek, ezen Foruzaingoa, zeinak Nafarroako errepideetan bide-segurtasuna bermatzeko eginkizuna baitu, ez duela eman parte-hartzaileen segurtasuna eta ibilgailu-trafikoa jario egokia bermatzeko eman beharko zukeen zaintza- eta laguntza-zerbitzua, antzeko ekitaldi askotan ematen duena, hain zuzen ere.

Gertaturiko guztiak pentsarazten du, zalantzarik gabe, Foruzaingoaren erantzule politikoei, euren aurreiritzi politikoei eraginda, eta erabateko arduragabekeriak jokaturik, inolako babesik gabe utzi dutela lasterketa hori eta arrisku larrian jarri dutela parte-hartzaileen segurtasuna.

Hori guztia dela-eta, Parlamentuko gure taldeak honako galdera hauek egin ditu:

1.- Zergatik ez du Foruzaingoa Korrika babes-tu Nafarroan barneko ibilbidean, hala behar zen errepide-zatietan?

2.- Halako erabakiaren erantzulea nor izan da?

Iruñean, 2001eko apirilaren 5ean

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

## Hauteskundeak aurreratzeko aukerari buruzko galdera

### GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko apirilaren 9an egindako bilkuran, foru parlamentari Félix M.<sup>a</sup> Taberna Monzón jaunak hauteskundeak aurreratzeko aukerari buruz egindako galdera atzera bidali duela jakitun dagoela adieraztea erabaki du. Galdera hori 2001eko apirilaren 2eko 37

zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko apirilaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

## HARPIDETZA ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonia* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b> Urte bat..... 6.300 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--